

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2652

*AGINDUA, 2022ko maiatzaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten da Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, Erasmus+ programaren esparruaren barruan.*

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak 2022ko ekitaldirako proposamenen deialdia argitaratu zuen Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, 2021eko azaroaren 24koan - EAC/A09/2021, Erasmus+ Programan (2021/C 473/09).

Erasmus+ programa hau 2021-2027 aldiari zehar aplikatuko da. Gaur egun, indarrean jarraitzen du 2017-2020 aldiari dagokion aurreko programak, amaitu gabeko Erasmus+ proiektuekin.

Erasmus+ programa hainbat sektoretan banatzen da. Gure laguntza-deialdian Lanbide Heziketarekin lotutako ekintzak jasotzen dira.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago; Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez onartu zen plana, eta Hezkuntza Sailaren <https://www.euskadi.eus> webgunean argitaratu.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorretan (abenduarien 23ko 1/2021 Legearen bidez onetsi ziren), kreditu nahikoa dago agindu honek aipatzen dituen laguntzak emateko.

Laguntzok honako hauetan xedatutakoari lotzen zaizkio:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartuta).
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren erregelamendua onesten duen 887/2006 Errege Dekretua.

Halaber, eskura dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1 – Dirulaguntzetarako deialdia egitea, Erasmus+ Programaren barruan irakasleen eta ikasleen ikaskuntzarako onartutako mugikortasun-proiektuak kofinantzatzeko, betiere 2022-2023 ikasturtean garatzen badira.

Europar Batasunaren finantzaketa oro har ekintzaren aurrekontuaren % 100era iritsiko ez denez, deialdi honen bitartez eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik eskuratzen diren dirulaguntzak Europar Batasunaren finantzaketak estaltzen ez duen aurrekontuaren zatia estaltzeko erabiliko dira.

Mugikortasun-programa horien hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak eta/edo tituludunak (ikasketen azken urtean KA1 eskatu dutenak) edo EAEko Lanbide Heziketako irakasleak izango dira.

Laguntza horrek, beraz, 2022-2023 ikasturtean egiten diren mugikortasun-proiektuen aurrekontuaren zati proportzionala estaliko du.

2.– Mugikortasun hauek kofinantzatu ahal izango dira:

1) Goi-mailako Lanbide Heziketari dagozkion KA1 proiektuak: ikasleen zein irakasleen mugikortasunak.

2) Goi-mailako mailarekin bat ez datozen Lanbide Heziketako gainerako KA1 proiektuak: irakasleen mugikortasunak soilik.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honetara guztira 500.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen arabera.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak eta onuradun izateko betekizunak.

1.– Pertsona juridiko pribatuek parte hartu ahal izango dute deialdian, baldin eta:

– Euskal Autonomia Erkidegoko eremu geografikoan jarduera ekonomikoa garatu dutela egiaztatzen badute.

– Erasmus+ proposamenen deialdian proiektuak onetsita badituzte.

– Erasmus+ Programaren KA1 mugikortasun-proiektuetan parte hartzen badute, Lanbide Heziketaren eremuan.

2.– Erakunde eskatzaileek eskakizun hauek bete beharko dituzte deialdian parte hartzeko:

– Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor- edo administrazio-arloko zehapenik ez izatea.

– Sexu-diskriminazioagatik jasotako administrazio- edo zigor-arloko desgaitzarik ere ez izatea. (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrena).

Derrigorrezkoa izanez gero, indarrean dagoen berdintasun-plan bat izatea eta/edo sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri izana egiaztatzea, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

Diruz lagundu beharreko jarduerak ez du bereizkeriarik eragingo sexuagatik.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

Organo kudeatzaileak behar bestetan egiaztatuko du automatikoki hori horrela dela, eta ez du erakundearen baimenik beharko horretarako, 1/1997 Legegintzako Dekretua betez.

Erakunde eskatzaileak modu arrazoituan uka dezake horretarako baimena. Kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

– Eskatu beharreko beste edozein betebeharrak eta eskakizunak betetzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikulua 2 eta 3 apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

3.– Aurreko apartatuan adierazitako eskakizunetaz gain, erakundeak, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, honako hau egiaztatuko du:

– Helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan eskatu duela –eta, hala badagokio, eskuratu– laguntza edo bestelako baliabiderik.

– Egiaztatu duela proiektuan parte hartzen dutenek ez dutela jasotzen Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren bestelako dirulaguntzarik proiektu bererako.

– Atxiki egiten zaiola Lanbide Heziketaren eremuko pertsonen ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak, Erasmus+ programaren esparruaren barruan, antolatu eta garatzeko dirulaguntzak kofinantzatzeko aginduan ezarritakoari.

– Deialdiaren oinarri guztiak ezagutzen eta onartzen dituela eta, laguntza ematen bazaio, haren xedeak betetzea hitzematzen duela.

– Betetzen dituela laguntzen onuradun izateko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen eskakizunak. Horrela egiaztatzen duten agiriak dituela. Erakundeak administrazioari helaraziko dizkiola horiek, horrela egiteko eskatuz gero.

– Aitorpenari dagokion aldi osoan beteko dituela aurreko betebeharrak.

– Ebazpenean kontuan hartutako egoeren edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen duela.

– Egiazkoak direla eskabidean eta horrekin batera aurkeztutako agirietan emandako datuak.

4.– Erakunde onuradunei dirulaguntzak eta laguntzak emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei, bai eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea ere.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatuko da dirulaguntza emateko eta ordaintzeko unean.

4. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateraezintasuna.

Proiektu horietan parte hartzen dutenek ezin izango dute xede bererako bakarkako laguntzarik jaso Eusko Jaurlaritzak edo Espainiako Gobernuak kudeatzen duen beste edozein deialdiren bitartez.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Erakunde interesdunek baliabide elektronikoak erabiliko dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

– Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak eskuragarri dauden administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, eskabide-inprimakira sartzeko erabiltzen dena, helbide honetan eskura daiteke:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0097413>

– Eskaberaren ondorengo izapideak helbide honen bidez egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>

– Ordezkarri baten bitartez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez:

<https://www.euskadi.eus/representantes>

Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta agiriak. Aukeraturako hizkuntza bera erabiliko da prozedura osoan.

2.– Eskabidearekin batera (I. eranskina) honako agiri hauek aurkeztuko dituzte (egoitza elektronikoa eskuragarri, PDF betegarri formatuan):

– Formulario normalizatua. «Proiektuaren identifikazioa» (II. eranskina).

– Formulario normalizatua. «Eskatutako laguntzaren kalkulua» (III. eranskina).

– Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuari (SEPIE) eginiko eskabidea. Dagoeneko onetsitako proiektuei dagokienez, finantza-kontratua aurkeztu beharko da.

3.– Eskabideek aukera emango dute erakunde eskatzaileak espresuki baimena eman dezan jarraian adierazten diren datuak edo dokumentuak organo kudeatzaileak eskuratzeko edo egiaztatzeke. Baimen horrek ez die eragiten Administrazio Publikoaren esku dauden egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatzeko ahalmenei.

4.– Funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo omisioak zigor-arloko, arlo zibileko edo administrazio-arloko erantzukizunak sortu ahal izango ditu.

6. artikulua.– Aurkezteko eta zuzentzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak ez baditu eskaturiko baldintzak betetzen, hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko eskatuko zaio erakunde interesdunari. Horrelakorik egin ezean, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da. Hori guztia, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

7. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako Europako Programen Atalari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak kudeatzea, eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria da atal horren arduraduna.

8. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa eta esleitzeko prozedura zehaztea.

Deialdiaren eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, laguntzak kudeatzen dituen organoak dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko du eta honela esleitzeko du:

a) Zenbatekoa kalkulatzeko, IV. eranskinean zehaztutako laguntza-taula hartuko da kontuan.

b) 2. artikuluan adierazitako zuzkidura ez bada aski aurkeztutako eskabide guztiei hasieran kalkulaturako zenbatekoetan erantzuteko, zuzkidura hori hainbanatuko da (proportzionalki banatuko da) eskatutako eskakizun guztiak betetzen dituzten eskabideen artean, eskatutako guztizko zenbatekoan oinarriturik.

9. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak ematea edo, hala badagokio, ukatzea edo ez onartzea, horren arrazoiak zehaztuta, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak egindako proposamena ikusita.

2.– Ebazpen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuz jakinaraziko da (<https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios>). Eskabideak aurkezteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpena argitaratzeaz gain, organo kudeatzaileak erakunde interesdunei jakinarazpen-abiak bidaliko dizkie, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoenetara SMSak edo mezu elektronikoa bidaliz. Abisu horiek ez dute izango, inola ere, egindako jakinarazpenaren balioa.

3.– Epea amaitu eta erakunde interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da.

4.– Prozeduraren ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari. Aurkezteko epea hilabetekoa da egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntza 2 epetan ordainduko da (lehena 2022ko ekitaldian, eta azkena 2023koan):

a) Proiektu bakoitzerako laguntza osoaren % 40, emandako laguntza onartu ondoren edo, hala badagokio, aginduaren 11.a) artikuluan ezarritako epea igarota ez badio berariaz uko egin.

b) Proiektuko mugikortasun-ekintza edo -fluxu bakoitza bukatu ondoren, gainerako % 60, mugikortasunak egin ahala. Hala, mugikortasun-ekintza edo -fluxu bakoitza amaitutakoan, erakunde onuradunak egindako mugikortasun bakoitzeko ziurtagiri bat aurkeztuko ditu, V. eranskinaren arabera, hilabeteko gehieneko epean.

Ziurtagiria jasotakoan eta ziurtagiri horretan zein SEPIEren behin betiko ebazpenean azaltzen diren datuak egiaztatutakoan, agindua emango da egindako mugikortasunen arabera kofinantza-ketari dagokion zatia ordaintzeko.

Egindako mugikortasun-ziurtagiriaren eredia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuratu ahal izango da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0097413>

2.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du.

Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko duzu, Eusko Jaurlaritzak emanda, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

11. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren laguntzen erakunde onuradunek betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Erakunde onuradunek, hamabost egun naturaleko epean –ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera–, berriaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

c) Diruz lagundutako proiektuen finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz.

e) Jakinaraztea xede bererako dirulaguntza edo laguntzarik jaso duen edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturen aldetik, estatukoak nahiz nazioartekoak izan.

f) Hezkuntza Sailak egiten dituen egiaztapenak onartzea.

g) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan adierazitakoa betetzea.

12. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea eta itzultzea.

1.– Dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, betiere dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada, salbu eta baldintza horiek betetzea eragotzi duten eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzan behar bezala justifikatzen diren ezinbesteko inguruabarrak gertatzen direnean eta, hala badagokio, beste edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako bestelako dirulaguntzak eta laguntzak eskuratuz gero.

Horrelakoetan, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak likidazio-ebazpena emango du eta, han, eman diren dirulaguntzen zenbatekoak berriz doituko dira.

2.– Itzultzeko prozedurari ekingo zaio, baldin eta laguntzaren erakunde onuraduna kasu haue-tako batean badago:

– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan adierazitako kasuetan.

– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan adierazitako kasuetan.

– Ez badu betetzen agindu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aipatutako edozein baldintza eta betebeharrak.

– Dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzetako edozein ez betetzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, horiek betetzea eragotzi badute eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzan behar bezala justifikatzen badira.

3 – Dirulaguntza ematea ekarri duten baldintzak bete ezean, erakundeak jasotako zenbateko osoa edo horren zati bat, dirulaguntzen arloan aplika daitekeen berandutze-interesak gehituta, itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

Dirulaguntza aldatu eta itzultzea honako araudi honetan dago araututa:

– 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

– 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko dirulaguntzak bermatzeko eta itzultzeko araubide orokorra arautzen duena.

– Laguntza emateko ebazpena.

13. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa.

Datu pertsonalak tratatu eta «Dirulaguntzak entitate laguntzaileei eta lanbide heziketako ikasle txeei» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: dirulaguntzak tramitatzea eskatzaile edota interesatuen datuak jasoz. Entitate laguntzaileei dirulaguntzak.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Orokorra.

– 1/1997 Legegintza dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta deza-kezu gure webgunean.

Araudia:

– Datuak Babesteko Araudi Orokorra.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek jasotzen ez dituen alderdiak arautzeko, aplikatzekoak izango dira Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Legea) eta laguntza eta dirulaguntza publikoei buruzko araudia.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua ere jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira bi epe horiek.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 3a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.



## I. ERANSKINA

## ERASMUS+

## INSTRUKZIO-ORGANOARI ZUZENDUA:

## TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA

---

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua \* \_\_\_\_\_ Zenbakia \* \_\_\_\_\_

Erakundearen izena \* \_\_\_\_\_

---

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua \* \_\_\_\_\_ Zenbakia \* \_\_\_\_\_

Izena \* \_\_\_\_\_

Lehen abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Sexua

fi Gizonezkoa

fi Emakumezkoa

---

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea \*

---

Jakinazpenetarako eta komunikazioetarako bidea \*

Elektronikoki

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Eskuko telefonoa: \_\_\_\_\_

Jakinazpen, komunikazioa eta abisuetarako hizkuntza\*

Euskara

Gaztelania

Erantzukizunpeko adierazpenak

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso dituela adieraziko du, edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.

Ez du diru-aguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatik debekuak berariaz aipatuta.

Derrigortasun-kasuetan, erakundeak berdintasun-plan bat du indarrean, eta/edo sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri ditu, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

Diruz lagundu beharreko jarduera ez da sexuagatik diskriminatzailea.

Ez dago sartuta itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean, hau da, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozeduraren batean.

Egunean dago zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoen ordainketan, indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraituz.

Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ditu.

Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan ezarritako ezein egoeratan.

Behar diren egiaztatze-lanak egin ditu ziurtatzeko proiektuan parte hartzen dutenek ez dutela jasotzen Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren bestelako dirulaguntzarik, bakarka, proiektu horretarako.

Erakunde eskatzaileak bere egiten du KA1 ekintzak antolatzeko eta garatzeko dirulaguntzak batera finantzatzeko Aginduan ezarritakoa (ikaskuntzarako mugikortasun-ekintzak dira horiek, Lanbide Heziketako eremuan garatzen direnak Erasmus + Programaren esparruan); halaber, deialdiko oinarriak osorik ezagutu eta onartzen ditu; eta, laguntza lortuz gero, hitzematen du deialdiko xedeak beteko dituela.

Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.

Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu. Horrela egiaztatzen duten agiriak ditu. Erakundeak administrazioari helaraziko dizkio horiek, horrela egiteko eskatuz gero.

Aitorpenari dagokion aldi osoan beteko ditu aurreko betebeharrak.

Ebazpenean kontuan hartutako egoeren edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

## Datuen babesari buruzko informazio oinarrikoa

Datu pertsonalak tratatu eta «Dirulaguntzak entitate laguntzaileei eta lanbide heziketako ikastetxeei» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

- Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Xedea: dirulaguntzak tramitatzea eskatzaile edota interesatuen datuak jasoz. Entitate laguntzaileei dirulaguntzak.
- Legitimazioa:
  - o Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
  - o 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Orokorra.
  - o 1/1997 Legegintza dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Hartzaileak:
  - o Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
  - o Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria:
  - o Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/039900-cap2-eu.shtml>.
- Araudia:
  - o Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
  - o 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

## Zer dokumentu eman diren

Dokumentu mota	Izena

## Lehenago aurkeztutako dokumentuak

Dokumentu mota	Entrega-agiriaren izena	Zer organok eman duen	Zer egunetan eman den

## Organo izapidegileak ofizioz egiaztatzeak

Araudi aplikagarriarekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAeko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.

EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Onartzen ez baduzu, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.

Honek elektronikoki sinatua:



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## II. ERANSKINA

### PROIEKTUAREN IDENTIFIKAZIOA

<b>Proiektuaren kodea</b>	
<b>Erakunde sustatzailea</b>	
Erakundearen izena	
IFK (identifikazio fiskaleko kodea)	
Posta-helbidea	
Telefonoa	
Erakunde sustatzailearen legezko ordezkaria	
<b>Proiektuaren arduraduna</b>	
Izen-abizenak	
Arduradunaren telefonoa	
Arduradunaren helbide elektronikoa	

	Ikasleen mugikortasunen kopurua	Irakasleen mugikortasunen kopurua	Oharrak
<b>Proiektu honen barruan SEPIEren ebazpenaren arabera emandako mugikortasunak</b>			
Mugikortasunen kopurua			
Gauzatze-aldia	.../.../...tik .../.../...ra		
<b>Mugikortasunak egiteko aldi baterako plana</b>			
	Ikasleen mugikortasunen kopurua	Irakasleen mugikortasunen kopurua	
Aurretik egindakoak			
2022-2023 ikasturtean			
Etorkizunean egingo direnak			



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## Kofinantzaketa eskatzen duten mugikortasunak

OHARRA: laguntza hauetarako **2022-2023 IKASTARO AKADEMIKOAN** zehar egin beharreko mugikortasunak bakarrik hartuko dira kontuan

Ikasleak	Mugikortasunen kopurua	(*)Mugikortasun-hilabeteak, guztira	Irakasleak	Mugikortasunen kopurua	(**)Mugikortasun-egunak, guztira
1. Herrialde-taldea			1. Herrialde-taldea		
2. Herrialde-taldea			2. Herrialde-taldea		
3. Herrialde-taldea			3. Herrialde-taldea		

(\*) Herrialde-talde bakoitzean aurreikusitako mugikortasunen hilabete guztiak adierazteak (adibidez: 3 hilabeteko 2 mugikortasun, guztira 6 hilabeteko mugikortasuna dakar lauki honetan).

(\*\*) Herrialde-talde bakoitzean aurreikusitako mugikortasunen egun guztiak adierazteak (adibidez: 5 eguneko 2 mugikortasun, guztira 10 mugikortasun egun lauki honetan).

OHARRA: herrialderen batean iraupen desberdineko mugikortasunak badaude, adierazi hemen.

Herrialdeak:

– 1. herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Danimarka, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxenburg, Norvegia eta Suedia.

Programari lotuta ez dauden hirugarren herrialdeak: Japonia, Israel, Hego Korea, Georgia, Argentina, Armenia, Angola, Saudi Arabia, Kuwait, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Suitza, Barein, Azerbaijan, Sudan, San Kristobal eta Nieves, San Vicente eta Granadinak, Arabiar Emirerri Batuak, Hong Kong, Libano, Vietnam, Mexiko, Taiwan, Moldavia, Malaysia, Tanzania, Kanada, Singapur, Australia, Thailandia, Faroe Uharteak.

– 2. herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Herbehereak eta Portugal.

Programari lotuta ez dauden hirugarren herrialdeak: India, Kazakhstan, Brasil, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Txile, Nigeria, Uganda, Liberia, Yibuti, Koreako Herri Errepublika Demokratikoa, Uzbekistan, Turkmenistan, Dominikar Errepublika, Jamaika, Bielorrusia, Libia, Siria, Kuba, Yemen, Kenya, Ruanda, Seychelleak, Antigua eta Barbuda, Malunda, Brunei, Montenegro, Malawi, Barbados, Santa Lucia, Granada, Dominika, Uruguai, Albania, Txina, Filipinak, Peru, Venezuela, Panama, Ghana, Txad, Guyana, Egipto, Maroko, Kiribati, Oman, Bosnia eta Herzegovina, Iran, Mozambique, Senegal, Mauricio, Qatar, Andorra, Jordania, Indonesia, Laos, Hegoafrika, Etiopia, Bangladesh, Ekuador, Paraguai, Costa Rica, Boli Kosta, Sierra Leona, Gabon, Haiti, Bahamak, Papua Ginea Berria, Mikronesia, Ukraina, Kirgizistan, Errusia, Monako, San Marino, Palestina, Vatikano Hiriaren Estatua.

– 3. herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Bulgaria, Txekia, Kroazia, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia eta Turkia.

Programarekin loturarik ez duten hirugarren herrialdeak: Nepal, Maldivak, Tayikistan, Nikaragua, Zambia, Ginea, Surinam, Guatemala, Honduras, Somalia, Trinidad eta Tobago, Aljeria, Kolonia, Gambia, Fiyi, Salomon Uharteak, Vanuatu, Kanputxea, Zimbabue, Burundi, Mongolia, Kamerun, Ekialdeko Timor, Sri Lanka, Madagaskar, Mali, Togo, Santo



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Tome eta Printzea, Tonga, Bolivia, Benín, Lesoto, Macao, Túnor, Irak, Burkina Faso, Ekuatore Ginea, Afrika Erdiko Errepublika, Ginea-Bisáu, Namibia, Komorak, Eritrea, Myanmar/Birmania, Afganistan, Niger, Mauritania, Cabo Verde, Kosovo, Esuatini, Hego Sudan.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren edo Espainiako Gobernuaren banakako laguntzei buruz**

Erakunde eskatzaileak egiaztatu du proiektuan parte hartzen dutenek ez dutela Eusko Jaurlaritzaren edo Espainiako Gobernuaren beste diru-laguntzarik jasotzen proiektu honetarako.

**Proiektuaren arduradun(ar)en dedikazioa**

Aurreko orrian zehaztutako pertsonak honako baldintza hauek betetzen dituzte:

- Proiektuaren arduradunak/kudeatzaileak dira, bai eta horri dagokionez egin beharreko kudeaketetarako kontaktua ere.
- Erakundeko langile dira eta ez daude azpikontratatuta.
- Hona hemen zehaztutako haien arduraldia:

Izen-abizenak			
NANa			
Egiten duen lana			
Hasiera-data (hala badagokio)			
Amaiera-data (hala badagokio)			
Asteko ordu-kopurua			
Ordu-kopurua guztira			





Erasmus+

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## III ERANSKINA

## ESKATUTAKO LAGUNTZAREN KALKULUA

ERAKUNDE SUSTATZAILEA		Proiektuaren arduraduna	
IFK		Telefonoa	
Proiektuaren kodea		Helbide elektronikoa	
Gauzatze-aldia			

IKASLEAK					
Herrialde- taldeak	Mugikortasunen kopurua	Mugikortasun- hilabeteak, guztira	Banakako- laguntza	Kudeaketa- laguntza	GUZTIRA
1					
2					
3					
Guztira					

IRAKASLEAK					
Herrialde- taldeak	Mugikortasunen kopurua	Mugikortasun- egunak, guztira	Banakako- laguntza	Kudeaketa- laguntza	GUZTIRA
1					
2					
3					
Guztira					

GUZTIRA	
---------	--

Adierazitako zuzkidura ez bada aski aurkeztutako eskabide guztiei hasieran kalkulaturako zenbatekoetan erantzuteko, zuzkidura hori hainbanatuko da (proportzionalki banatuko da) eskatutako eskakizun guztiak betetzen dituzten eskabideen artean, eskatutako guztizko zenbatekoan oinarriturik (Aginduaren 8. artikulua).

## Herrialdeak:

## – 1. herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Danimarka, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia eta Suedia.

Programari lotuta ez dauden hirugarren herrialdeak: Japonia, Israel, Hego Korea, Georgia, Argentina, Armenia, Angola, Saudi Arabia, Kuwait, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Suitza, Barein, Azerbaijan, Sudan, San Kristobal eta Nieves, San Vicente eta Granadinak, Arabiar Emirerri Batuak, Hong Kong, Libano, Vietnam, Mexiko, Taiwan, Moldavia, Malaysia, Tanzania, Kanada, Singapur, Australia, Thailandia, Faroe Uharteak.

## – 2. herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Herbehereak eta Portugal.

Programari lotuta ez dauden hirugarren herrialdeak: India, Kazakhstan, Brasil, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Txile, Nigeria, Uganda, Liberia, Yibuti, Koreako Herri Errepublika Demokratikoa, Uzbekistan, Turkmenistan, Dominikar Errepublika, Jamaika, Bielorrusia, Libia, Siria, Kuba, Yemen, Kenya, Ruanda, Seychelleak, Antigua eta Barbuda, Malunda, Bruni, Montenegro, Malawi, Barbados, Santa Lucia, Granada, Dominika, Uruguai, Albania, Txina, Filipinak, Peru, Venezuela, Panama, Ghana, Txad, Guyana, Egipto, Maroko, Kiribati, Oman, Bosnia eta Herzegovina, Iran, Mozambique, Senegal, Mauricio, Qatar, Andorra, Jordania, Indonesia, Laos, Hegoafrika, Etiopia, Bangladesh, Ekuador, Paraguai, Costa Rica, Boli Kosta, Sierra Leona, Gabon, Haiti, Bahamak, Papua Ginea Berria, Mikronesia, Ukraina, Kirgizistan, Errusia, Monako, San Marino, Palestina, Vatikanoko Hiriaren Estatua.

## – 3. herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Bulgaria, Txekia, Kroazia, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia eta Turkia.

Programarekin loturarik ez duten hirugarren herrialdeak: Nepal, Maldivak, Tayikistan, Nikaragua, Zambia, Ginea, Surinam, Guatemala, Honduras, Somalia, Trinidad eta Tobago, Aljeria, Kolonbia, Gambia, Fiyi, Salomon Uharteak, Vanuatu, Kanputxea, Zimbabue, Burundi, Mongolia, Kamerun, Ekialdeko Timor, Sri Lanka, Madagaskar, Mali, Togo, Santo Tome eta Printzea, Tonga, Bolivia, Benin, Lesoto, Macao, Túnor, Irak, Burkina Faso, Ekuatore Ginea, Afrika Erdiko Errepublika, Ginea-Bisáu, Namibia, Komorak, Eritrea, Myanmar/Birmania, Afganistan, Niger, Mauritania, Cabo Verde, Kosovo, Esuatini, Hego Sudan.

IV. ERANSKINA  
LAGUNTZAK KALKULATZEKO TAULA

IKASLEEN MUGIKORTASUNA		
Herrialdeak	Banakako laguntza hilabeteko (eurotan)	Mugikortasunagatiko Kudeaketa-laguntza (eurotan)
1. taldea	310,00	200,00
2. taldea	270,00	
3. taldea	240,00	
IRAKASLEEN MUGIKORTASUNA		
Herrialdeak	Banakako laguntza eguneko (eurotan)	Mugikortasunagatiko Kudeaketa-laguntza (eurotan)
1. taldea	62,00	50,00
2. taldea	57,00	
3. taldea	52,00	

Banakako laguntza = mantenua + ostatua + bidaia  
Mugikortasunaren kostua guztira = banakako laguntza + kudeaketa-laguntza

## Herrialdeak:

## – 1. Herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Danimarka, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia eta Suedia.

Programari lotuta ez dauden hirugarren herrialdeak: Japonia, Israel, Hego Korea, Georgia, Argentina, Armenia, Angola, Saudi Arabia, Kuwait, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Suitza, Baréin, Azerbaijan, Sudan, San Kristobal eta Nieves, San Vicente eta Granadinak, Arabiar Emirerri Batuak, Hong Kong, Libano, Vietnam, Mexiko, Taiwan, Moldavia, Malaysia, Tanzania, Kanada, Singapur, Australia, Thailandia, Faroe Uharteak.

## – 2. Herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Herbehereak eta Portugal.

Programari lotuta ez dauden hirugarren herrialdeak: India, Kazakhstan, Brasil, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Txile, Nigeria, Uganda, Liberia, Yibuti, Koreako Herri Errepublika Demokratikoa, Uzbekistan, Turkmenistan, Dominikar Errepublika, Jamaika, Bielorrusia, Libia, Siria, Kuba, Yemen, Kenya, Ruanda, Seychelleak, Antigua eta Barbuda, Malunda, Brunéi, Montenegro, Malawi, Barbados, Santa Lucia, Granada, Dominika, Uruguai, Albania, Txina, Filipinak, Peru, Venezuela, Panama, Ghana, Txad, Guyana, Egipto, Maroko, Kiribati, Oman, Bosnia eta Herzegovina, Iran, Mozambique, Senegal, Mauricio, Qatar, Andorra, Jordania, Indonesia, Laos, Hegoafrika, Etiopia, Bangladesh, Ekuador, Paraguai, Costa Rica, Boli Kosta, Sierra Leona, Gabon, Haiti, Bahamak, Papua Ginea Berria, Mikronesia, Ukraina, Kirgizistan, Errusia, Monako, San Marino, Palestina, Vatikanoko Hiria eta Estatuak.

## – 3. Herrialde-taldea:

EBko estatu kideak eta programari lotutako hirugarren herrialdeak: Bulgaria, Txekia, Kroazia, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia eta Turkia.

Programarekin loturarik ez duten hirugarren herrialdeak: Nepal, Maldivak, Tayikistan, Nikaragua, Zambia, Ginea, Surinam, Guatemala, Honduras, Somalia, Trinidad eta Tobago, Aljeria, Kolonbia, Gambia, Fiyi, Salomon Uharteak, Vanuatu, Kanputxea, Zimbabue, Burundi, Mongolia, Kamerun, Ekialdeko Timor, Sri Lanka, Madagaskar, Mali, Togo, Santo Tome eta Printzea, Tonga, Bolivia, Benín, Lesoto, Macao, Túnor, Irak, Burkina Faso, Ekuatore Ginea, Afrika Erdiko Errepublika, Ginea-Bisáu, Namibia, Komorak, Eritrea, Myanmar/Birmania, Afganistan, Niger, Mauritania, Cabo Verde, Kosovo, Esuatini, Hego Sudan.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

V. ERANSKINA  
EGINIKO MUGIKORTASUNAREN ZIURTAGIRIA

Data: 2023-xx-xx

Proiektuaren izena:  
SEPIE kodea:  
Erakunde sustatzailea:  
Proiektuaren arduraduna:  
Praktikaldien tutore arduraduna (dagokionean):

Mugikortasuna duen pertsonaren izena eta abizenak:  
Mugikortasuna duen pertsonaren NANA:  
Zentroa, lanbide arloa eta heziketa-zikloa:

Mugikortasunaren ezaugarriak:

Hasiera-data	Amaiera-data	Denbora asteetan	Xede-estatua	Xede-enpresa/-erakundea + herria

Esperientziaren eta erdietsitako helburuen laburpena:

Mugikortasuna egin duen pertsonaren balorazioa

	Iritzi ona	Iritzi erdi ona	Iritzi erdi txarra	Iritzi txarra	Iritzirik ez	Oharrak
Eginiko mugikortasuna eta aurreikusitakoa bat datoz						
Praktikaldiaren lanbide-esperientzia						
Tutorearen jarraipenak						
EAEko antolamendua						
Xede-tokiko antolamendua						
Bidaia						
Xedeko egonaldiaren baldintzak						

Bekaduna:

Praktikaldien arduraduna  
(dagokionean):

Europako proiektuaren arduraduna:

Data

Data

Data

Sinadura

Sinadura

Sinadura